

# **Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2018**

**Hautagaia:**

**Paulo IZTUETA ARMENDARIZ**

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

### HAUTAGAIA AURKEZTEKO ARRAZOIAK / AURKEZPEN ESKUTITZA

Paulo IZTUETA ARMENDARIZ Euskal Herriari eta Euskarari bere bizia emaniko irakasle, ikertzaile, euskal idazle eta kultur eragile eskuzabala eta oparoa dugu.

Hara hemen bere aurkezpen laburra:

Paulo IZTUETA ARMENDARIZek Filosofia eta Soziologian **ezagutza akademiko zabal eta sendoak dituena** da. Bere titulu akademikoak Filosofian Lizentziatua eta Soziologian Doktorea, atzerriko Unibertsitateetan, Erroma eta Parisen lortuak ditu. Bere ibilbide profesionalean Politika, Hizkuntza, Erljio, Kultura eta Literaturaren arloak landu ditu, beti ere Soziologiaren ikuspuntutik begiratuta.

**Orotara arlo horietan 42 liburu ditu argitaratuak, horietatik dozena bat elkar lanean.** Bere argitalpen ugarien artean, **aipamen bereziak jaso dituztenak** dira horietako batzuk: *Marxisma eta nazional arazoa* (1974)/ *Marxismo y cuestión nacional* (1977), Jokin Apalategirekin batera egina eta oihartzun handia izan zuena eta bere garaian Gotzon Garatek Deustun oinarrizko erreferentzia bibliografiko bezala ezarri zuena; *Sociología del fenómeno contestario del clero vasco (1940-1975)/Sociologie du phénomène contestataire au Pays Basque Sud: l'exemple du clergé* (1981), Mathie Elgoyhenek, eta Wiliam J. Callahan-ek beren lanetan aipatzen dutena; ***Orixe eta bere garaia* (1991), 1.407 orrialdeko saiakera, obra hau, Espainiako Saiakera sailean Sari Nazionalerako hautatua izan zen.** (Urte horretan Emilio Lledo filosofoaren *El silencio de la escritura* saioak eraman zuen lehen saria (1992))

**Hezkuntzaren sail espezifikoan eman ditu emaitza oparoak**, aipagarrienak direlarik: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian* (2000); *Hizkuntza asimilazioa eta Hezkuntza sistema Euskal Herrian* (2016) eta *Euskal hezkuntza sistema nazionalaren inguruan* (2017). Hauek denak **oinarrizko liburuak dira gaur egun euskal curriculumaren** inguruko arazoak ulertzeko.

Baditu **sariak jasotako obrak** ere: Poesian *Herbestean* (1979), CAP, Irun Literatur Saria. Saiakeran *Intelligentsia kimatuaren orbelak* (1996), CAP, Irun Literatur Saria.

Ez bakarrik idazle, irakasle eta ikertzaile bezala, **kultur eragile bezala ere ibilbide luzea du egina.** Hasteko, gaztetan, Areatzako sakramentinoen **Arnas** (1959-64) aldizkaria zuzendu zuen 5 urtez. **Zabal** (1973-1977) aldizkariaren sortzaile eta lankide izan zen Iparraldean. Garai berean Ipar eta **Hegoaldeko Elkar** (1974) argitaletxearen sortzaile eta partaide ere izan zen. Kultur mugimenduen esparruan **EKB (Euskarazko Kultur Batzordea)** bideratzailea 1983an.

**Bere ekarpenik handiena, 2000. urtean sortu eta bideratutako Utriusque Vasconiae argitaletxearena da.** Ekimen kolektibo horretan parte hartu duten gehienak esparru akademikotik datozenak dira eta argitaletxearen filosofia izan da diskurtso unibertsala testuinguru partikularretik abiatuta lantzea, euskal kulturari espazio zabal eta berriak irekiz. **EHUK bere egin du 148 obra jasotzen dituen Bilduma, dohaintzan jaso.** **EHUK bere aitortza publikoa egingo dio Utriusque Vasconiae argitaletxeari.** Aurreikusia dagoenez, **2018ko irailaren 3tik aurrera 27 panelez osatutako liburu erakusketa egingo da eta irailaren 28an, berriz, ekintza akademikoa egingo da Fakultateko Paraninfoan Erretoretzako arduradun eta proiektu honetan parte hartu duten lankideekin.**

## **EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA**

Paulo IZTUETA ARMENDARIZEk bere ekintza akademikoaz gain, **gizarte mailan ere proiektio zabala** izan du: liburu eta artikulua akademikoetatik aparte, presente egon da herri-ekimenetan, prentsa idatzian, irratsaioetan, telebistan, mahainguruetan, hitzaldietan, etab.

Aipatzeko ere Paulo Iztueta Armendarizek **MANUEL LEKUONA** handiarekin zuzeneko harremana izateko aukera ere izan zuen.

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

### HAUTAGAIAREN CURRICULUM VITAE

#### TITULU AKADEMIKOA

Paulo Iztueta Armendariz

Berastegi, 1941

Filosofian Lizentziatua Erromako Angelicum Unibertsitatean (1969)

Soziologian Doktorea Paris VIII Unibertsitatean (1976)

UZEIko lankidea 11 urtez (1976-1988)

EHUko irakasle titularra eta ikertzailea Donostiako Pedagogia Fakultatean 18 urtez (1988-2006).

Erretiratuz gero, UHEZIKo masterretan eta Bergarako UNEDerko ikastaroetan hitzaldiak.

#### BIZIBIDE PROFESIONALA

Erbestetik 1976an itzuli eta, beste lankide batzuekin batera, xedetzat ikerketa soziologikoak egitea zuen "Gizeko" taldean arituko da. Baina ekimen bizitza laburra izan zuen. Urte beren Donostian lehen urratsak ematen dituen eta Jakin-ekoei bultzatzen duten UZEIren (Unibertsitate Zerbitzuetako Euskal Ikastetxea) proiektuan parte hartu eta taldeko izateko deia hartzen du, berak gogoz onartzen duena. Erakunde honetan hasten da bere lehen ibilbide profesionala, hamabi urtez (1976-1988) luzatuko dena. Hurrengo lanpostua EHU izango du, hamar urtez (1988-2006), jubilatuta arte, luzatzen dena. Irakaskuntzan eta ikerkuntzan emango ditu urte horiek, oso berea duen Hezkuntzaren Soziologiaren sailean.

Banan-banan aipatuko dira erakunde batean zein bestean egindako ekarpenak.

#### UZEIko lankide (1976-1988)

UZEI Donostian sortu zen 1977an, Jakin taldekoen eraginez. Joseba Intxausti izan zen lehen zuzendaria. zen Elkartearen berri ematen eta gidatzen zuena. Bera zen proiektu honen sortzaile eta eragile nagusia eta Elkarteko lehen zuzendaria. Bere helburua euskararen corpus-a modernizatzea, eta horretarako lexiko tekniko-zientifikoa lantzea zen. Laburki esanda, izenak berak dioen bezala, euskarazko unibertsitatearen hizkuntz azpiegitura lantzea, batez ere, maila lexikografikoan. Honen defizitak handiak ziren 1970eko hamarkadan eta hutsune hori betetzera zetorren. Orokorrean esanda, euskal kulturgintzan zebiltzanen eskeari erantzun nahi zion UZEIk, bete egitekoa gehienbat irakaskuntza eta komunikabideetan ezarri.

Hiztegi berezituetan, hots, tekniko-zientifikoetan mamitu izan da UZEIren jarduera nagusi eta espezifikoa. Edukiari dagokionez, hiru motatako hiztegiak bereizten ziren: linguistikoak, terminologikoak eta

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

entziklopedikoak. Ez baita berari dagokiona hiztegi linguistikoa lantzea, Euskaltzaindiarena baizik, azkeneko bi mota hauek lantzeraz mugatu da, bereziki. Egituraren aldetik garbiki bereizten dira, baina elkarri oso loturik daude: terminologikoak lexiko eleaniztuna aurkezten duen bitartean, entziklopedikoak sail espezifikoari dagozkion gaiak lantzen ditu, garrantziaren arabera, artikulua hiru mailatan sailkatuz: lehen mailakoak, bigarrenakoak eta hirugarrenakoak. Gaien garapenean agertzen diren kontzeptuen ordaina lexiko aniztunean aurkitzen da. Hori da UZEIko hiztegi tekniko-zientifikoaren berezitasuna, normalean bi tomatan ematen dena, batean lexiko aniztuna eta bestean gorputz tematikoa. Hiztegi terminologiko horretatik joango da terminologi bankua aberasten, sistematizatzen eta kodetzen. Egia da, terminologia izan, hizkuntzalaritzari lotua da, bana zientzi adar guztietara irekia denez gero, oso espezifikoa da bere edukian eta trataeran, hizkuntzalarien eta adituen elkarlana eskatzen duena.

Gizarte Zientzien sailean aritu nintzen arduradun bezala, hiztegiak planifikatzen, talde-lanak osatzen eta testuak zuzentzen. *Politika Hiztegia* I eta II 1980an argitaratu zen, *Filosofi Hiztegia* I eta II 1987an. Baina tartean, batez ere irakaskuntzan zeuden premiei erantzutearren, lehendik dezente aurreratua zegoena bukatu eta *Filosofia: Lexikoa* argitara eman zen 1982an, hitzaurrean nioen bezala, era berezi batez behin-behinekoa zela aitortuz. Testugintzan, berriz, *Filosofian*, UBI I-II-III eta BBB I-II-III prestatu nituen eta 1983-84. urteetan argitara eraman. Hiztegi gehienek organigraman zuzendari, zuzentzaile eta koordinatzailearen izenak aipatzen badira ere, nahiz horietako bakoitzak bere egitekoa izan, praktikan saileko arduradunak eramaten zuen zamarik handiena edo, zuzenago esateko, ia osoa. Nik egiazki eskertzen dut *Filosofia Hiztegia/2* izeneko gorputz tematikoan Xabier Andonegiren zuzendaritzarekin kontatu izana eta, orobat, *Politika Hiztegia/2* izeneko gorputz lexikalean Xabier Kintanaren partaidetzarekin. Ohore dut elkarrekin lanean egindako aste osoan zehar gure etxean aterpe hartu izana. *Politika Hiztegia* eta *Filosofia* hiztegien prestakuntzan Xabier Kintana hizkuntzalariaren eta Xabier Andonegi filosofoaren laguntzarekin kontatu nuen.

Curriculum bibliografikoan Hizkuntzaren Soziologiaren sailean datoz zehaztuak UZEIko nire ekarpenak.

### **EHUn irakasle eta ikertzaile (1988-2006)**

Euskal hiztegi zientifikoan lanketan UZEIn jardun ondoren, hurrengo urratsa han lortutako esperientzia unibertsitate munduan praktikan jarri izan zen. Honela, 1988an EHUn sartzean, nire bigarren ibilbide profesionala hasten da, Hezkuntzaren Soziologiaren sailean, arlo bikoitza – irakaskuntzarena eta ikerkuntzarena-, landuz, euskaraz eta gaztelaniaz, beharren arabera.

Irakaskuntzaren sailean, euskaraz, ikasgai hauek eman nituen: *Pedagogía Garaikidea/Pedagogía Contemporánea* Pedagogiako 1. mailan 1988-1995 epealdian zehar, euskaraz eta gazteleraz; *Hezkuntzaren soziología* Pedagogiako 2. mailan 1990-2006 epealdian zehar, euskaraz; *Hezkuntza Politikaren Legeria* Pedagogiako 3. mailan 1995-2000 epealdian zehar, euskaraz; *Gizartea eta kultura Euskal Herrian/Sociedad y cultura en el País Vasco* Gizarte-Hezkuntzako 1. mailan 1995-2006 epealdian zehar, euskaraz eta gazteleraz. Horiek oinarritzko ikasgaietan, eta hautazkoetan, berriz, beste hau: *Etnometodología eta hezkuntza*, Pedagogiako 1. mailan 1995-2000 epealdian zehar, euskaraz. CAPen (Curso de Aptitud Pedagógica) *Hezkuntzaren Soziología* irakatsi nuen 1992-95 eta 2003-2004 ikasturteetan, euskaraz. Ikasgaiarik maiteenak azken hori eta *Gizartea eta kultura Euskal Herrian* izan dira.

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

Landu eta argitaratutako liburu eta artikulu akademikoak zerrendaturik datoz gaien eta kronologiaren arabera curriculum bibliografikoaren sailean, berdin zuzendutako doktore tesien zerrenda. Hor ageri da ikerketari, oro har, eta ikertzaile berrien prestakuntzari eman zaion garrantzia.

### ZEHARBIDEZKO GAI SOLTE BATZUK.

---

Hemen hainbat sailetan eta denboraldi desberdinetan egindako saioak aipatzen dira, hala nola filosofian, literaturan, itzulpengintzan, ahaztu gabe, hainbat libururi egindako hitzaurreak eta epilogoak –bereziki pedagogia sailean-, han eta hemen emandako hitzaldi akademikoak zein herritarrak, parte hartutako mahai-inguruak, argitara gabe dauzkan lanak, bukatuak eta erdibukatuak.

#### FILOSOFIAZ

Areatzako sakramentinoen *Arnas* eta Arantzazuko *Jakin* aldizkarietan argitaratutako artikulu batzuk ere badira, eliza ikasketak egiten jardundako garaioak, nolabait sail erdifilosofiko erdiliterario erditeologikoan sar litezkeenak, eta alfabetatzen kutsu nabaria dutenak. Artikulu horiek, kezka ideologikoekin batera, luma trebatzeko ardura ere berekin zeramaten. Erdaraz alfabetatuak izan ginenontzat urrats hori eman beharrean geunden euskara goi mailako kulturaren trebatzeko. Garai hartako pedagogia erlijiosoaren eskakizun nagusietako bat zen hori, pastorgintzan oinarritzen zena. Dozena bat artikulu edo, horrelakoak izango dira. Orduko lanetatik bat aipatzekotan “Sokrate aurreko filosofia” izeneko saioa aipatuko nuke, *Jakin-ek Filosofiaren kondaira*-n (I, 1965, 9-44) argitaratua.

#### LITERATURAZ

*Zabal* aldizkarian badira bi artikulu edo argitaratuak, garai hartako gaurkotasunaren lekuko. Lehenak “Soljenitsyne” (6, 1973, 37-40) zeraman izenburutzat. Erbestetik Errusiako iraultza handiaren krisia salatu zuen ahots kritikoa zen berea, Nobel saria irabazi zuena. Beste bigarrena, “*Eleberria ziztagarria: Hil ala bizi*” (5, 1974, 37-40) zen, kartzelatik zetorren ahots errea, gordina, iraultzailea, euskara mardulean idatzia. Ezizenez “Larraun” zeraman egilea Xabier Amuriza zen.

Bestalde, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak 1978an antolatutako Urantzu Hiria Literatur Sarietan *Herbestean* (1979) poema saritu zuten eta harez gero Kutxarekin lankidetzan jarduteko eta gutxienez 30 urtez Literatur Sariketa horietan, noiz ipuinaren, noiz saioren noiz nobelaren sailetan, mahaikide izateak literaturaren gorabeherak hurbiletik segitzeko zorte paregabea eman dit. Urte berean *Ibiltari* poema liburua argitaratu zen Juan Mari Lekuonaren hitzaurrearekin.

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

### ITZULPENGINTZAZ

Lehen itzulpena, argitara gabea, Michel Quoist-en *Prières/Otoitzak* (1954) liburua izan zen, Luis Mari Mujikarekin batera landua. Gero enkargua egindako itzulpenak etorri ziren: Sopena argitaletxearen *Diccionario Infatil/Haur Hiztegia* (1980) izan zen, GAKen “Albumes infantiles” bildumakoak urtero-urtero, lau bederen bai: *Gipuzkoako arrainak* (1982), *Gipuzkoako ermitak* (1983), *Gipuzkoako harriak, mineralak eta fosilak* (1984) eta *Gipuzkoako basa-landareak* (1985) eta, bilduma horretatik aparte, *Txakolina* (1985). Horiez gain, 1979-1981 eta 1982-85 epealdietako Kutxa beraren *Urteko Txostenak* ere itzuli nituen eta beste hainbat, 1980-1987 epealdian zehar, Gaztetxoek Elkarteko *Atoz* eta Harreman Publikoetako *CAP Noticias* aldizkarietan. Azken hauetan itzultzailearen izenik gabe. Arabako Foru Diputazioak ordainduta, Gotzon Nazabal, Fernando Mendizabal eta hiruon artean *Arabako nekazal arkitekturaren inbentarioa* (1985), II, itzuli genuen. *Jakin*-entzat eta UZEIrentzat egindakorik ere bada. Horiek denak ordaindutako itzulpen-lanak izan dira.

Baina horiez gain eta guztien gainetik, Emile Durkheim-en *Éducation et sociologie/Hezkuntza eta soziologia* (1993) eta Manuel Olasagastiren *Otras noticias de Dios/Jainkoaz beste berri batzuk* (2008). Edukiaren kalitateak eraginda egindakoak dira.

### HITZAURREAK

Kritika literarioaren sailean sartzekoak dira, besteak beste, *Jakin*-en argitaratutako “Jose Austin Arrietaren literatur lanak” 1995, 86, 41-63), Luis Mari Mujikaren *Urdin eta Burdin/Azul e Hierro* (1965) eta *Barne ibilkerak* (2001) poema liburuei, Luis Baraiazarraren *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* liburuari egindako hitzaurreak eta, bereziki, Orixeren *Idazlan Guztiak* bildumako liburuki bakoitzari egindakoak. Besteok hezkuntzaren sailekoak dira, zehazki hauek: Begoña Bilbaoren *Curriculuma eta kultura Euskal Herrian* (2003), Karmele Perez Urazaren *Curriculuma eta testuliburua Euskal Herrian* (2004), Gurutze Ezkurdiaren *Curriculuma eta ingurunea Euskal Herrian* (2004), Begona Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez egileen *Euskal curriculuma ala euskal dimentsioa curriculumean?* (2004), eta, azkenik, Angel Irigorasen *Hezkuntzaren lekuko batzuk. Zegama 2011* liburuari egindakoa. Lehen lau liburuak, izenburuetan ikus daitekeenez, euskal curriculumaz dihardute dira.

### HITZALDIK ETA MAHAI-INGURUAK

Unibertsitate-esparrutik at, UZEIk, Udalek, Herria 2000 Elizak, Ikastolek edo herri-mugimendu desberdinek antolatutako hitzaldi eta mahai-inguruetan hizlari izateko aukera izan dut. Hitzaldi gehienak, halere, UEUK antolatutakoetan eman izan ditut, sorreratik hasita, Donibane Lohizunen eta Iruñean, 1973-1990 epealdian zehar, ia urtero. Zortziren bat hitzaldi eman nituen, horietako batzuk *Uztaro* aldizkarian argitaratu izan direnak.

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

### KULTUR ERAGILE

*Kulturgintzaz diharduen zati honetan, egileak sortu eta bideratu dituen kultur plataformak hartuko dira kontuan. Arnas, Zabal eta Zehatz aldizkarietan, Elkar eta Utriusque Vasconiae argialetxeetan eta EKB kultur mugimenduan izan duen zuzeneko partaidetza eta horietan egindako ekarpena aipatzen dira hemen, nolabait euskalgintzaren esparru soziolinguistikoa sartzen direnak.*

#### ARNAS (1959-1967)

Areatzako sakramentinoen aldizkari hau 1959an argitaratu zen, Urretxuko ikasle pasiotarren *Laiaketan*, Oñatiko laterandarren *Erein*; Begoñako karmeldarren *Gogoz*, Oliteko frantziskotarren *Gure Izarra* ikasle aldizkariekin batera kontuan hartu beharrekoa, belaunaldi hori izango baita alfabetatzearen eta euskara batuaren sozializazioa ekarriko duena. Bost urtez zuzendari lanak egin nituen, 1964an Madrila joan nintzen arte. Epealdi horretan egin nituen zuzeneko ezagutzak Aita Onaindiarekin, Jokin Zaitegirekin eta Joan San Martinekin eta, tradizioa eten ez zedin gerra aurreko belaunaldiarekin, ahalegindu ginen harremanak sendotzen.

#### ZABAL

Aldizkari honi buruzko gorabeherak eta xehetasunak jadanik azalduak ditugu *Erbesteko euskal pentsamendua* (2001), *Euskal pentsamendu berritzailearen sorrerak. ZABAL. Testu hautatuak* (2015) eta *ZABALen isuria (1973-1976)*. *Ezker abertzalea paradigma berrien aurrean* (2015) liburuetan. *Zabal* bere jatorrian *Euzko Gogoa*-ren tradizioari jarraipena ematera zetorren, euskarari garapen akademikoa eskainiz eta diskurtso unibertsala testuinguru partikularretik abiatuta eraikiz eta, bide batez, euskal pentsamendua gizarte sekularatuan kokatuz. Asmo horien ametsetan sortu zen eta ibilbide oparoa egin zuen bere lau urteko ibilaldian.

Paristik itzulian Hazparden nengoela, abiarazi nuen asmo hori, Frantziako legeriaren aurrean zuzendaritza eta kudeaketa administratiboan Beñat Oihartzabal, Kattalin Idiart, Gexan Alfaro eta Battita Lartzabalen izenak agertzen direlarik. Lankidetzak Iparraldeko eta Hegoaldeko lankideek osatzen zuten. Lankide oparoenen artean, Jokin Apalategi, Jean Louis Davant, Mikel Urteaga, Paulo Iztueta, Gexan Alfaro, Jose Manuel Odriozola, Katalin Idiart, Battita Lartzabal, Piores Xarriton, eta, aurkitzen dira. Lankideak belaunaldi berrikoak dira, 25-40 urte bitartekoak, 34 lankidetatik 14 Iparraldekoak.

Baina *Zabal*-en garrantzia ez da hor bukatzen, lehen esperientzia honetatik sortzen baita Iparraldeko eta Hegoaldeko Elkar argialetxeari bide emango dion proiektu berriak.

Erbestetik itzultzean, 1976an, itzali egin zen *Zabal* hemeretzi zenbaki atera eta gero. Horren oinordeko bezala sortu zen *Zehatz* aldizkaria Donostian, haren ildotik edo, Hegoaldean hastera zihoan trantsizioko egoera politiko eta kultural berrira moldatzeko asmoarekin. Jesus Mari Larrazabal izan zen aldizkari berriaren sustatzaile nagusia eta ni ere erredakzio-kontseiluan nengoen beste batzuekin batera. Ez zuen jarraipenik izan, euskarri ekonomikorik izan ez zuelako. Zorte hobea izango dute babes publikoaren



## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

laguntzari esker argitaratzen diren egungo unibertsitate maiako aldizkari espezializatuak, besteak beste, *Uztaro*, *Tantak* eta *Gogoa*-k.

### ELKAR

Lehendik zeuden argialetxeak indarrean zeuden: *Itxaropena* eta honen euskarazko *Kuliska Sorta* (1952), *Auñamendi*, *Enciclopedia Vasca* (1967), *Txertoa* (1967), *Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones* (1968) elebidunak, eta euskarazkoetan 1960ko hamarkada-bukaeran sortutakoak, hala nola, *Gordailu*, *Lur*, *Irakur Sail*, *Etor*, hauek 1969an, eta *Jakin Sorta* (1971) eta *Gero* (1973). Elkar-en ildo editoriala, ordea, ez zihoan horien bidetik. *Zabal*-en ikuspegiarekin lerrotatua joango zen argialetxe bat nahi genuen eta horrek eraman gintuen jadanik Iparraldean bideratua zegoen argialetxea biziberritzea Hegoaldeko txertoarekin. Horrela ulertzen da *Zabal* aldizkariaren eta Elkar argialetxearen proiektuak zergatik etorri ziren bata bestearen ondoren edo, bestela esanda, nola bata besteari bidea ireki zion, beti ere kulturgintzaren norabidea ikuspegi beretik hautemanen. Argialetxe berri baten proiektua buruan genekarrenok jadanik 1970eko hamarkada-hasieran hasiak ginen lehen urratsak ematen, *Zabal* aldizkariaren jardutean esan bezala, Iparraldeko erbestealdian, frankismoak euskal pentsamendu berria, sekularizatua, sozialista eta euskaltzalea bahitua zeukan garaian, hain zuzen. Ordukoa da euskal pentsamendua euskaraz eta bertatik lantzeko proiektua asmatu eta bideratzeko proiektua, martxan Irati argialetxearekin jarri genuena 1974an, Hendaiako Mugalde-n inprimatutako *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian* liburuarekin.

Goian aipatu dugun liburu horren kontraportadan datorren testuak ezin garbiago erakusten du zein ziren Irati argialetxearen xede nagusiak: saiakerak argitaratzea eta ahalegin horretan bere hegoak Iparraldera eta Hegoaldera zabaltzea, Irati mendilerroak bere urak itsaso bietara hedatzen dituen bezala. Irati-ren lehen liburu horretan beste bi bidean zirela iragartzen zen: *Aberri-borroka eta klase-borroka* eta *Herria: Politika eta kultura*. Honek ezin argiago adierazten du asmoetako argialetxe hori bide autonomoa egiteko bokazioarekin jaino zela, idazleek beren saiakerak argitaratzeko zeukaten beharrak eraginda, Hegoaldeko zentsuratik aparte.

Elkar Hegoaldean finkatuz geroztik, bere ibilbide editorialean, hasierako jarrera militanteari enpresa etekinarena nagusi zela eta etekinen iturri oparoa aurkitu zuela irakaskuntzaren alorrean –bereziki, Ikastolen munduan-, eta euskal kantagintzak izan zuen garapen ikusgarrian. Eta horrela, euskal pentsamenduaren lanketa, bere helburu lehena, baztertuta geratu zela. Gauza jakina da, 2010eko urte-hasieran, Deustuko Unibertsitatea euskal pentsamendua lantzeko idazle prestatuen bila zebilela eta asmo hori bideratzeko Elkar-era jo zuela. Eskaintza, antza, Zelaiaren bidetik zetorren. Elkar argialetxeak sail horretan ez baitzuen ezein azpiegitaririk, ez bildumarik ez ezer antzekorik, saio solte batzuk besterik, lankidetzaren eske UEUra jo zuen. Honi berak proposatutako gaiak lantzeko egile trebatuak eskatzen zizkion. Proiektua finantzatua zenez gero, arras interesatua zegoen, baina UEUk 2010eko otsailaren 26an egindako bileran ezezkoa eman zion Elkar-ek egindako proposamenari. Honek zer adierazten duen? Saiogintza akademikoa espezifikoki beste nonbait landu dela, bereziki UEUn, eta Gaiak jada desagertuan eta Utriusque Vasconiae argialetxeetan.

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

### UTRIUSQUE VASCONIAE

Utriusque Vasconiae argitaletxea 2000. urtean sortu genuen Jokin Apalategik eta biok. Esan bezala, Elkar-ek betetzen ez zuen hutsune bat betetzeko asmoz.

Euskal kulturaren inguruan mugitzen den hainbatentzat, gehienentzat ez esatearren, ezezaguna egiten da izenburu hori. Gehienek lanak izaten dituzte ahoskatzen eta onartzekoa da izena ez dela beharbada komertzialegia. Baina badu bere esanahi sinboliko handia, *Zabal* aldizkaria sortzerakoan izan genuen asmoarekin bat egiten duena. Euskal Herria, kulturaren eta hizkuntzaren aldetik bederen, bere osotasunean hartzea zela xedea, Iparraldekoen eta Hegoaldekoen elkar-lana aintzat hartuz. Azken batean, Arnaud Oihenartek bere *Notitia Utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitaniae*-rekin desiratzen zuen xede bera genuen. Oroimen historikoan presente dago sinbolismo hori. Izen honek adierazten du *Zabal* eta *Elkar* berritua sortzean izandako xede berberak berrartzen dituela Utriusque Vasconiae-k, sortuak izan zireneko iturrietara doala. Hasierako proiektu hura, ez bakarrik beharrezkoa, bideragarria ere badela frogatu nahi izan dugu. Noski, berragerpen honen gibelean, trantsizioz geroztik euskal kulturaren industrian nagusitu den praktika merkantilistaren kontrako erreakzio bezala sortua da, aditzera emanez, oraindik ere, gauden egoeran egonda, euskarazko kultur produkzioa -bereziki fikziozkoa ez dena-, militantismo-jokabide handi baten beharrean dagoela.

Hamalau urteko bere ibilbidean ehun eta berrogeita zortzi inguru argitaratu ditu eta Giza eta Gizarte Zientzietan ireki gabe edo gutxi landuta zeuden 14 sail berezi ireki ditu: *Bila*, *Kritika Literarioa*, *Egunero* irakurtzen delako, *Euskarriak*, *Ideiak*, *Saiakera*, *Gutun-Sorta*, *Oroitzapenak*, *Baterako Argitarapena*, *Ensayo*, *Solas Literarioak*, *Fundamentos*, *Ahozkoak* eta *Narrativa*.

Argitaletxe honen aukera euskal pentsamendua lantzea izan da, eta da, gehienbat maila akademikotik begiratuta. Betiko konbentzimendua zen euskal gaiak bertatik begiratuta eta bertako hizkuntzan pentsatuta burutzen ez badira, bertakoa atzerriko iturrietatik edanez eta atzerrikoen begiz irakurtzen eta oldozten jarraituko dugula. Ez dugula inoiz lortuko geure arazoak bertatik eta geure begiz ikusi eta aztertzea. Geureak pentsamendu arrotzia izanez segituko duela, pentsamendu unibertsaletik partikularerako labirintoan galduta gabiltzalako. Ezingo dugu geure diskurtso propioa eraiki, nagusiki eta etengabe kanpoko iturrietatik edanez gatozelako. Nonahiko eta nolana hiko iturriak beharrezkoak ditugu, baina datorkiguna, irensten duguna, aberasgarri izan dakigun eta arrotzi ez gaitzan, ezinbestekoa da, geure ikuspegitik begiratuta digeritzea. Kultura berri baten, politika berri baten, hizkuntz politika berri baten, ekonomi eredu berri baten, gizarte-egitura eredugarri baten bila gabiltza, hori da gaur aldarrikatzen dena. Laburki esanda, eraiki nahi den Euskal Herri imaginarioak lehen eginkizunetako bat du diskurtso berri baten beharra birpentsatzea eta, fikzio-mundutik harago, euskal pentsamenduaren oinarriak bota eta euskal gizarte eraldatu baten eraikina solairuz solairu altxatzen joatea bere jakintza-alor guztietan.

Ekinaren ekinez, Utriusque Vasconiae-k, bere urrian, lankidetza hautatua bereganatzea lortu du, pentsalari-andana polita, luma trebatu eta airosoak euskal idazle klasikoan ildotik, UZEIk eta UEUK irekitako normalizazio-bidetik. Gehien-gehienak bizibidez eta bokazioz unibertsitateko euskal irakasle eta ikerlariak dira. Poliki-poliki idazle-multzo heldu baten prosa akademikoa lantzen ari da, horrelako idazketak eskatzen duen zehaztasuna, argitasuna eta dotorezia kontuan hartuta. Pozgarria da jadanik hirurogei eta hamar inguruko idazle-talde batekin kontatzea, guztiak akademikokoak eta bere gaian adituak direnak. Honetan datza, besteak beste, argitaletxe txiki honen berezitasuna.

Oraingoz bederen bere osasun onari eusten dio. Etorkizuneko bego ikuskizun, euskararen zeruan noiznahi estaltzen baitu hodei beltzak eguzki-izpia. Garbiago daukana da askotan, edo gehienetan, arazo berriek sustrai zaharrak dituztela eta horiei aurre egiten guztientzat aski lan badagoela. Euskararen

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

unibertsoa eraikitze-lanetan ikusten dut, enpresa horretan sinesten dutenekin orpoz orpo ekimen betean. Esparru akademikoan ere bere onarpena irabazi du. Lehenik, argitaletxe indexikatuen artean, Hego Euskal Herriari dagokionez, bi baino ez dira aurkitzen, EHU eta Utriusque Vasconiae. Eta bigarrenik, Utriusque Vasconiae argitaletxeak bere bilduma osoaren dohaintza egin dio EHUri eta honek, bere obra nagusizat onartuz, digitalizatu eta nonahiko unibertsitate sarean zabaltzeko ardua bere gain hartu du. Onarpen publiko baten keinua.

### EKB (Euskarazko Kultur Batzordea)

Prentsan Kultur mugimendu hau ofizialki Bergaran 1983an sortu zela esatera mugatzen bada ere, ordurako abiatua zen kultur mugimendu hori, Paulo Agirrebaltzategi eta Paulo Iztueta sortzaile eta bultzagileei esker.

Egia da, bai, EKB edo honen antzeko zerbait sortzeko asmoak ez zirela erabat berriak. Bere historiaurrean zeuden 1976an euskararen ofizialtasuna eskatuz egindako agiria eta sinadura-bilketa, urte berean UEUK bultzaturik Durango egindako batzarra, euskal kultur talde eta elkarte desberdinak elkartzeko egindako bilerak, eta abar. Alabaina, kronika horretan aipatzen ez dena da, EKB sortzera eraman zuen faktore eragileetako bat, hurbilena, Koldo Mitxelenak UZEIri egindako erasoaldian euskal instituzioek erakutsitako epelkeria izan zen. Garai hartan, euskalgintzaren alorrean gogaideak izateaz gain, UZEIko lankideak ere baginen eta sarritan hitz egiten genuen, Koldo Mitxelenaren salaketaz geroztik batik batik, herri-mailako kultur erakundeetan nabarmentzen zen ahuleziaz eta zeuden kultur elkarten indartzeaz. Euskararen kontrako indarrak ere plazaratzen hasi ziren, gaztelaniadunen eskubideak euskaldunen parean edo gorago jarritz. Bestalde, herri-mugimenduen emaitza kolektiboa izandako Ikastolen Konfederazioa ere erakunde organikoen finantza babesean eroso sentitzen hasia zen, esku batekin handik diru publikoa jasoz eta bestearekin herriari eskatuz.

EKB elkartua plazaratu aurretik,, prestaketa-lanak egiten hasiak ginen orduan indarrean zeuden kultur eragile eta elkarteekin harremanetan jarritz. Hain zuzen ere, kultur indarrak oro batu eta koordinatzeko asmoarekin sortu genuen elkarte hori, murgildurik geundeneko egoera nahaskor hartatik atera eta euskarazko kultur plataformak indartzeko xede garbiarekin, hain zuzen ere. Hasierako proiektua mamitu eta gero etorri zen elkarte berriaren Bergarako aurkezpen publikoa. Euskal kulturgintzan zihardutenen ahotza izan nahi zuen, oro-hartzailea eta zabala baina, aldi berean, errebindikatzailer eta salatzailea. Garai hartan bere inguruan berdinek ez zuen erakunde bat zen EKB. Agian, hurbilekoenak Katalunian “Criada” eta etxean “Euskal Herrian euskaraz” izan zitezkeen.

EKB bideratu eta gero, euskalgintzan zeuden kultur talde eta elkarte gehienak koordinatzea lortu zenean, materialak bildu eta plangintza orokorrerako urratsak emateari ekin zitzaion. Saio honen emaitza izan zen *Jakin* aldizkariak 1985eko bere 34. zenbakian argitaratutako *Euskararen Plangintzarako oinarriak* izeneko txostena. Zerbait berria zen, zegoen egoera deskribatzen zuena, eraldakuntzarako filosofia bat zekarrena, zereginak eta epeak finkatzen zituen. Txosten horren egile-izenik ez baitator, esan dezadan Kike Amunarriz, Paulo Agirrebaltzategi eta Paulo Iztueta izan zirela eta bakoitzak bere alor espezifiko landu zuela. Hor finkatuak geratu ziren euskarak sail guztietan, irakaskuntzan bezala maila administratiboan ere, bere normalizaziorako bidean eman beharreko urratsak. Maila teorikoan bederen, EKBren baitan aurrerapauso garrantzitsu bat markatzen zuen. Euskararen egoeraz eta etorkizunaz azalpenak eman eta gero, aterabideak proposatzen zituen.

*Jakin*-eko argitalpen kolektibo hori burutu eta laster, 1986. urtean zehar, EKBko militantziatik aldentzen joan zinen, nahiz bertako kidea izanez segitzen nuen. Arrazoa? Hasierako helburua baitzen

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

instituzioak eta herri mugimenduak ahalegin komun batean elkartzea, erakundeek herri mugimenduari gain hartzen ziotela iritzirik, hainbat militante aldendu egin ginen. Haren heriotzatik sortuko da 1997an Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua, euskal kulturgintza subentzionatuaren bidetik.

### CURRICULUM BIBLIOGRAFIKOA GAIEN ARABERA

---

#### 1. POLITIKAREN SOZIOLOGIA

##### Liburuak

- (1974): *Marxisma eta nazional arazoa Euskal Herrian*, Zabal, Baiona, 148 or. Jokin Apalategirekin batera.
- (1977): *El marxismo y la cuestión nacional vasca*, Itxaropena, Zarautz, 247 orr. Jokin Apalategirekin batera (*Marxisma eta nazional arazoa Euskal Herrian* jatorrizkoaren itzulpena Paulo Iztuetak egina).

##### Artikuluak

- (1988): "Nazio-arazoaren pedagogia: Irlandatik Euskal Herrira", *Uztaro*, 27 zk., 19-32 orr.
- (1996): "'Herria2000 eliza: Inkesta", *Herria2000eliza*, 1996-12-31.
- (1987): "Hitzaurrea", in Paulo Iztueta (zuz.): *Filosofias/1, Hiztegia*, UZEI/Elkar, 13-25 orr. (Hitzaurrearen bukaeran, sinadura gisa "1986ko azaroaren 24ean, Filosofi Zuzendaritzak" dator, baina Paulo Iztueta da horren egile bakarra).
- (1974): "Altzürükuri ohar batzu", *Zabal*, 8 zk., Baiona, 18-20 orr.
- (1975): "Bretania-Handiko herriak", *Zabal*, 13 zk., Baiona, 14-19 orr.
- (1975): "Irlanda kolonizatua", *Zabal*, 13 zk., Baiona, 20-33 orr.
- (1977): "Eire/Irlanda", *Jakin*, 2 zk., Arantzazu/Oñati, 72-79 orr.
- (1980): "Autodeterminatzeko eskubidea", in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika Hiztegia*, I, Elkar/UZEI, Donostia, 55-65 orr.
- (1980): "Integrazioa", in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika Hiztegia*, I, Elkar/UZEI, Donostia, 263-264 orr.
- (1980): "Kastrismoa", in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika Hiztegia*, I, Elkar/UZEI, Donostia, 304 orr.
- (1980): "Migrazioa", in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika Hiztegia*, I, Elkar/UZEI, Donostia, 364-367 orr.
- (1980): "Nazioa", in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika Hiztegia*, I, Elkar/UZEI, Donostia, 372-383 orr.
- (1980): "Stalinismoa", in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika Hiztegia*, I, Elkar/UZEI, Donostia, 471-472 orr. (1982): "PNV eta EE abertzaleak adl dira?", *Egin*, Hernani, 1982-10-17.
- (1984): "Marxismoaz mahaingurua", *Jakin*, 30 zk., 94-110 orr. (Jokin Apalategi, Beltza eta Karlos Santamariarekin batera).
- (1985): "Autonomía, independencia, derecho de autodeterminación y democracia", in Colectivo Herria 2000 Eliza: *Autodeterminación de los Pueblos: un reto para Euskadi y Europa*, I, Herria 2000 Eliza, Bilbo, 392-403 orr.

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

(1992): “Boterea Niccolo Machiaveli baitan”, *Uztaro*, 5 zk., 151-179 orr.

(1996): “Burgosko prozesuaren zilarrezko eztaietan”, *Egin*, 1996-01-

(2018): “Nazio kulturalaz ohar zenbait”, *Gogoa* aldizkarirako prestatua eta entregatua, 2018ko udazkenean argitaratzekoa, 25 orr.

## 2. ERLIJOAREN SOZIOLOGIA

### Liburuak

(1976): *Sociologie du phénomène contestataire au Pays Basque Sud: L'exemple du clergé basque dans la période 1940-1975*, (Doktore-tesia Parisko Vincennes-en (Université VIII) defendatua. Jatorrizko hau argitaragabea).

(1981): *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco (1940-1975)*, Elkar, Donostia, 471 or. (Gregorio Labakak jatorrizko frantsesetik itzulia).

### Aipuak:

1) Mathieu Elgoyhenek bere doktore tesian: “Enfin, pour clore cette très brève historiographie, il faut mentionner l'ouvrage capital de Paulo Iztueta *Sociologie du phénomène contestataire au Pays Basque Sud : l'exemple du clergé*, qui, s'il concerne exclusivement le clergé d'Euskadi Sud, aide néanmoins 'à comprendre en partie la prise de conscience nationaliste de certains prêtres du nord (qui se solidarisent du combat de leurs « frères », victimes de la répression du régime franquiste », in *Le clergé du diocèse de Bayonne face à la question basque 1964-1998*, G.R.H.I., Toulouse, octobre 2001, 12 or.

2) William J. Callahan-ek bere *The Catholic Church in Spain* liburuan aipu asko eta hainbat paragrafo dakartza liburu horretatik hartuta, *La Iglesia católica en España (1875-2002)* itzulpenean egiazta daitekeen bezala, Espainiako Elizaz 1954-1970 epealdiaz diharduten 16-19 ataletan, 321-409 orr., Crítica, 2002).

3) Luis Haranburu Altunak bere *El crepúsculo de Dios. Historia cultural del cristianismo en Vasconia* liburuan (Fundación Popular de Estudios Vascos, 2016), orobat, *Sociología del fenómeno contestatario...* (1981) eta “Euskal Eliza eta seminarioak frankismoan” artikulutik hainbat aipu egiten ditu, in Rikardo Arregi, Larramendi Bazkuna, Andoain, 1996.

### Artikuluak

2(1962): “Baserri Gaztedia”, *Arnas*, 7 zk., Areatza, 36-39 orr.

2(1962): “Eliza Argeli-n”, *Arnas*, 8 zk., Areatza, 29-33 orr.

2(1973): “Eleiz.gizonak”, *Zabal*, 6 zk., 48-58 orr.

(1978): “Eliza eta politika Euskadin”, in *Herria-Eliza Euskadi Pueblo-Iglesia*, I, Auñamendi, 240-280 orr.

(1987): “Eliz mugimenduak Euskal Herrian: Baserri Gaztediaren eta Eskualdun Gazteriaren kasua”, in R. Lopez Atxurra (zuz.): *Kultura eta portaera erlijiosoak Euskal Herrian historian zehar*, III, EHU, Bilbo, 181-204 orr. (Hitzaldia EHUko Udako V. Ikastaroan, Donostian, uztailaren 23an).

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

- (1988): “Euskal apezten protesta”, *Larrun*, 7 zk., 63-66 orr.  
 (1996): “Euskal eliza eta seminarioak frankismoan”, in J. M. Torrealdai (zuz.): *Rikardo Arregi. Gizona eta garaia*, M. Larramendi Kultur Bazkuna, Andoain, 121-257 orr.  
 (2001): “Euskal elizaren barne-zatiketa frankismoan: erresistentzi mugimendu baten kronika”, *Herria 2000 Eliza*, 172 zk., 29-33 orr.

### 3. KULTURAREN SOZIOLOGIA

#### Liburuak

- (1974): *Sei idazle plazara*, I, Jakin,-EFA, Arantzazu-Oñati, 162 or. (Jokin Apalategirekin batera).  
 (1974): *Sei idazle plazara*, II, Jakin,-EFA, Arantzazu-Oñati, 152 or. (Jokin Apalategirekin batera).  
 (1988): “*Quito'n arrebarekin*” irakurriz, Etor, Donostia, 433 orr.  
 (1989): *N. Ormaetxea “Orixe” (1988-1961)*, Bidegileak bilduma, Joseba Intxausti (zuz.), Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza, Gasteiz.  
 (1991): *Orixe eta bere garaia*, V, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia, 1.407 orr.  
 (1996): *Intelligentsia kimatuaren orbekak*, Kutxa fundazioa, Donostia, 489 orr.  
 (2001): *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, 260 orr.  
 (2002): *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-1936)*, Utriusque Vasconiae, Donostia,  
 (2003): *Orixe auzitan*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 127 orr.  
 (2003): *Orixe gaitzesia*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 313 orr.  
 (2003): *Orixe saiogilea*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 265 orr.  
 (2005): *Euskal idazleen belaunaldiez*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 127 orr.  
 (2015): *Euskal pentsamendu berritzailearen sorrerak*, ZABAL, *Testu hautatuak*, (Prestatzailea eta lankidea Jokin Apalategirekin batera), Utriusque Vasconiae, Donostia, 301 orr.  
 (2015): *ZABALen isuria (1973-1976)*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 433 orr.

#### Artikuluak

- (1973): “Arratitak Lapurdira”, *Anaitasuna*, 260 zk., Bilbo, 1973-09-15, 4 or.  
 (1973): “Amorrazioa.... Joera eta zentsurak”, *Zabal*, 2 zk., Baiona, 48-58 orr.  
 (1973): “Egungo kulturaren bidetik”, *Zabal*, 1 zk., Baiona, 53-57 orr.  
 (1974): “*Anaitasuna* berritua”, *Zabal*, 9 zk., Baiona, 38-41 orr.  
 (1981): “Eliz ikastetxeetako aldizkariak”, in *Jakin (25 urte Euskal Kulturari)*; Arantzazu-Oñati, 49-71 orr.  
 (1982): “Likidazionismoaren bidetik garamatzate”, *Egin*, Hernani, 1982-02-20  
 (1985): “Euskararen adierazpen soziala gerraondoan”, in Joseba Intxausti (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmoa. País Vasco. Realidad y proyecto*, II, EFA-Jakin, 392-403 orr.  
 (1990): “El trato de Dios”, in Luis Mari Mujika (zuz.): *Orixeren aportazio literarioak*, EHU, Donostia, 27-46 orr.; ikus, halaber, in Paulo Iztueta (zuz.): *Orixe. Mendeurrena (1988-1988)*, IV, Hitzaldiak, Etor/Eusko Jaurlaritza, Donostia. 1991, 493-514 orr. (Hitzaldia Donostiako VIII. Udako Ikastaroetan).



## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

- (1991): "Orixeren bizitza", in Paulo Iztueta (zuz.): *Orixe. Mendeurrena (1988-1988)*, IV, *Hitzaldiak*, Etor/Eusko Jaurlaritza, Donostia., 21-39 orr.
- (1991): "Orixeren estetika-ulerpenerako hurbilketa", *Hegats*, 4 zk., 71-84 orr.
- (1991): "Quito'n arrebarekin", in Paulo Iztueta (zuz.): *Orixe. Mendeurrena (1988-1988)*, IV, *Hitzaldiak*, Etor/Eusko Jaurlaritza, Donostia.473-492 orr.
- (1992): "Nicolas Ormaetxea Pellejero", in *Auñamendi Entziklopedia*,
- (1993): "Euskal kulturaren kontraesanak", *Uztaro*, 9 zk., 119-152 orr.; "Las contradicciones de la cultura vasca: teoría y práctica", in Paulí Davila (koord.): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*, EHU, Bilbao, 313-360 orr.
- (1993): "Euskal nortasunaren bila", in Joxe Azurmendi (zuz.): *Hizkuntza eta talde-nortasuna*, I, EHU-Udako Ikastaroak, Donostia, 17-95 orr.
- (1994): "Egin, zuk beti aurrera", 1994-02-01 (Argazkia eta testua).
- (1997): "Inteligentsiaren lekua euskal unibertsoan", *Argia*, 1997-03-02.
- (1998): "Zabal, bizi haiza?", *Euskadi información*, 1998-12-16.
